

Javier Lezaun

Bilbon jaioa. Javier Lezaun irakaslea (lecturer) da Oxford-eko Unibertsitatean eta zientzia eta teknologiaren gobernuarekin eta berrikuntzaren soziologiarekin zerikusia duten gaietara zuzentzen du gehien bat bere jarduna. Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta Fulbrigh bekaduna izan zen Cornell-eko Unibertsitatean (Estatu Batuak), non doktoratu egin baitzen. Lezaunek eskolak eman ditu London School of Economics-en eta Amherst College-n. Gaur egun Oxford-eko Unibertsitateko James Martin Institute for Science and Civilization-en lan egiten du eta haren lana bioteknologiak eta biziaren zientzia berriek gizartean, legean eta ekonomian duten eraginera dago zuzenduta, batez ere.